Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun zenbakia: 74
Nork aurkeztu du: Marijo Dañobeitia Zabala
Aurkezpen data: 2022/02/02

Sugerencia Nº: 74
Presentada por: Marijo Dañobeitia Zabala
Fecha de presentación: 02/02/2022

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Lezamako kartografia gaizki jaso da eta ez dator bat 2020ko Udalplanean argitaratutako datuekin; beraz, zuzentzea eskatzen da.

2. Eskatzen da, Lezaman, Asua ibaiaren inguruko kalifikazioa Uholdeen Prebentziorako Plan Integralean 500 eta 100 urtetarako dituen prebisioak errebisatzea eta aldatzea; erreka inguruetako eremuetan derrigorrezko landaketak egitea eta erreka inguruetako jarduerak eta eraikuntzak galaraztea.

   Gainera, herriaren inguruan eraztun berdeak sortzea eskatzen da, ez banakako zuhaitz ilarak, baizik eta gune trinkoak landatzea, gerizpea eta haizeguneak sortzeko; eraikitzekoak diren tokietan beste horrenbeste erreserbatzea zuhaiztiak sortzeko, bai etxebizitza eremuetan eta baita gune industrialetan ere, lur eremuetan landatzeko eta ez porlan artean egindako zuloetan.

3. Esaten da legeak berak derrigortu behar duela % portzentaje altua herriko gazteentzat eskuragarri den etxebizitza babestua eraikitzera, beharraren eta eskaeraren arabera. Bai jabetzen edo alokairuan eskuratzeko.

   Eraikitzeko orduan kontutan hartzea ezgaituak, nagusiak, familia gurasobakarrak... zaintza komunitarioa egitea errazten duten eraikinak, elkarbizitza isolatua galarazten dutenak.

   Bestalde, eskatzen da legez jasota egon dadila

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. La cartografía de Lezama está mal recogida y no se corresponde con los datos de 2020 publicados por Udalplan, por lo que se solicita su subsanación.

2. Se solicita la revisión y modificación de las previsiones, del Plan Integral de Prevención de Inundaciones, de las calificaciones para los periodos de retorno de 500 y 100 años del río Asua en Lezama; realizar las plantaciones obligatorias en las zonas limítrofes de los arroyos, y evitar las actividades y edificaciones en las proximidades de los arroyos.

   También se solicita la creación de anillos verdes alrededor de la localidad, no de hileras de árboles individuales, sino de zonas densas para la creación de sombra y zonas expuestas a los vientos; en los lugares que se vaya a construir, tanto zonas residenciales como industriales, habría que reservar igualmente espacios para la creación de arbolado plantado en extensiones de terreno y no en orificios entre cemento.

3. Se dice que la propia ley debe obligar a construir un porcentaje elevado de vivienda protegida disponible para los jóvenes de la localidad, en función de la necesidad y demanda. Tanto en propiedad como en alquiler.

   A la hora de construir, tener en cuenta a los discapacitados, a los mayores, familias monoparentales... edificios que faciliten que los cuidados comunitarios, y que impidan la convivencia aislada.

   También se pide que esté recogida por ley la

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: NYSL-KLDV-1V0D-5I50
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

eraikin guztietan, klima aldaketa dela eta, eguzki-plakak teilatuetan jartzeko derrigortasuna, bizilagunak autonomoak izan daitezen trantsizio energetikoaren aurrean.

Eraikitzeko ereduak eta moduak aldatzea ere, ingurune atsegina sortzea, eta lurraren artifizializazioa gutxitzea, eraikitzen den azalera berberean, belardi, zuhaizti trinkoak egitea.

obligatoriedad de colocar placas solares en los tejados en todos los edificios debido al cambio climático, para que los vecinos sean autónomos ante la transición energética.

Asimismo, modificar los modelos y modos constructivos, crear un entorno agradable y reducir la artificialización del terreno, en la misma superficie en la que se construye, hacer prados, arbolado denso.

4. Inguruko eta neguan migratzera datozen animalien ehiza eta arrantza debekatzea eskatzen da.

4. Se pide que se prohíba la caza y la pesca de los animales autóctonos y de los que migran en invierno.

5. Aisialdirako egokitzen diren guneak ingurune natural eta parke naturaletan kokatzen direla dio, eta, horren ondorioz, degradatu egiten direla. Horregatik, toki natural horiek babesteko, eskatzen da aisialdia eukalipto inguruetara zabaltzea, legedi zorrotzagoa eta oztopatzaileagoa motordun ibilgailuak guneraino iristeko, bertara heltzeko erraztasunak saihestea, edo zirkulazioa mendi inguruetan debekatzea.

   Gainera, eskatzen da aparkaleku txikiagoak izatea eta urrutiago kokatuta egotea, pista gehiagorik ez zabaltzea babes gune horietan, eta naturarekiko atxikimendu kulturala eta errespetua zabaltzea.

5. Se dice que los espacios que se adaptan para el ocio se ubican en entornos y parques naturales, lo que hace que se degraden. Por ello, con el fin de proteger estos lugares naturales, se solicita que el ocio se traslade a las zonas de eucalipto; también, una legislación más estricta y obstruccionista para que los vehículos a motor lleguen hasta la zona, se eviten las facilidades de acceso al mismo, o se prohíba la circulación en zonas de monte.

   También se pide que los aparcamientos sean más pequeños y estén ubicados más lejos, que no se amplíen más pistas en esas zonas de protección y que se amplíe la adhesión cultural y el respeto a la naturaleza.

6. Benetako basogintzara bueltatzea eskatzen da, biodibertsitate galera geldiaraztea eta bertako basoak berreskuratzea, eukaliptoa landatzea lehenbailehen debekatzea (bueltarik ez duten kalteak sortzen ari delako eta basamortua sortzetik oso urrun ez gaudelako).

   Horretaz gain, eskatzen da hainbat gauza egitea: basoen kudeaketan irizpide argiak legislatu, agindu, LPPak dioen bezala paisaia eta basoak bertoko zuhaitz eta landarediarekin babestea.

6. Se pide volver a la verdadera silvicultura, frenar la pérdida de biodiversidad y recuperar los bosques autóctonos, prohibir inmediatamente el cultivo del eucalipto (porque causa daños irreparables y estamos cerca de crear un desierto).

   Además, se pide que se hagan otra serie de cosas: legislar la gestión forestal con criterios claros, ordenar, proteger el paisaje y los bosques con árboles y vegetación autóctona tal y como dice el PTP.

7. Eskatzen da, benetako asmoa baldi bada baso autoktonoak leheneratzea edo babestea, hasteko eukaliptoaren landaketa debekatzen; belardi menditarretan eta ez menditarretan eukaliptoa landatzea debekatzea biodibertsitate galera geldiarazteko.

7. Se solicita que, si la verdadera intención es la restauración o protección de bosques autóctonos, se empiece prohibiendo la plantación de eucalipto; que se prohíba la plantación de eucalipto, tanto en prados montanos como en no montanos, para frenar la pérdida de biodiversidad.

8. Erreka ertzetan dauden enpresen inguruan utzikeria da nagusi, haien soberakinek edonon amaitzen baitute. Eskatzen da enpresa

8. En torno a las empresas situadas en las orillas de los arroyos reina la desidia, pues sus excedentes acaban por todas partes. Se pide que

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: NYSL-KLDV-1V0D-5I50
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

guzti-guztiak barruko arduraz aparte kanpokoaz ere arduratzea, eta, bestela, zehapenak aplikatzea.

9. Enpresa berriak, etxebizitzak edo edozelako azpiegiturak eraikitzeko erreka ibilguetatik distantzia handi batera ez bada, ezin dela eraiki arautzea.

10. Bide bazterrak garbitzen direnean edo belar mozketa egiten denean, brigadak zaborra ere (autoen leihoetatik botatzen diren plastiko, lata, e.a.) batzea mila zatitan bihurtu baino lehenago. Eta naturekiko kontzientzia kulturala zabaltzea bestelako mezu-publizitate ganorabakoak zabaltzen diren bezain beste.

11. Esaten da nahiko azpiegitura eraikita dagoela hain toki txikirako, eta lehentasuna garraio publikoari ematea eskatzen da, bai maiztasunean eta ibilbide berriak antolatzean beharrizanaren arabera. Gainera, eraikin berriak egin baino lehenago inguruan dauden etxeen eta pabiloien zerrendak egin, alokairuan eta salgai daudenen artean bat aukeratzeko, zoru gehiago ez okupatzeko.

12. Berrikuntza-ardatzei buruz hitz egiten da eta esaten da Lezama eta Zamudio industriagunez ondo hornituta daudela eta, horregatik, eskatzen da bestelako jarduerak egiteko izendatuta dauden gune berdeak babestuak izatea eta kategoria hori ematea.

13. Lezamako Plan Urbanistikoaren kartografia gaizki jaso da; beraz, zuzentzea eskatzen da. Halaber, agertu behar ez diren garapen urbanistikoak bertatik kentzea eta Balio Estrategiko Handiko nekazaritza-lurzoru gisa kalifikatzea.

14. Azaltzen da URA Uraren Euskal Agentziak Lezamako Asua ibaiaren inguruko kalifikazio batzuk aldatu dituela (1983ko uriolen ondoren ur azpian geratutako lursail batzuk 100-500 urteko erretiroan sailkatu ditu, orain dela gutxira arte Uholdeen Prebentziorako Plan Integralean ez zegoen horrela jasota). Horrez gain, azaltzen da ibaia nola dagoen (herrira ailegatzen denetik, zementuzko kanal sakon batean sartuta eta 100 metro inguru estalita). Hori guztia kontuan izanik eskatzen da:

las empresas sean responsables no solo del interior de estas, sino también del exterior, y, en caso contrario, aplicar las sanciones correspondientes.

9. Regular que no se puedan construir nuevas empresas, viviendas o infraestructuras de cualquier tipo en las cercanías de los cauces de los arroyos.

10. Cuando se limpien las cunetas o se corte de hierba, que la brigada recoja también la basura (plásticos, latas, etc. que se arrojan por las ventanillas de los coches) antes de que se desintegre. Y extender la conciencia cultural hacia la naturaleza en la misma medida en que se difunden otros mensajes de publicidad insustanciales.

11. Se dice que hay bastante infraestructura construida para un lugar tan pequeño, y se pide dar prioridad al transporte público, tanto en frecuencia como a la hora de organizar nuevos recorridos en función de las necesidades. También hacer listas de las casas y pabellones que hay en la zona antes de que se construyan nuevos edificios, para elegir uno entre los que están en alquiler o en venta, y, así, no ocupar más suelo.

12. Se habla de ejes de innovación y se dice que Lezama y Zamudio están bien dotados de polígonos industriales, por lo que se solicita que las zonas verdes designadas para realizar ese tipo de actividades sean protegidas y se les otorgue esa categoría.

13. La cartografía del Plan Urbanístico de Lezama no es la correcta, por lo que se solicita su subsanación. También se pide la eliminación de los desarrollos urbanísticos que no deben aparecer y la calificación de esos suelos como suelo agrario de Alto Valor Estratégico.

14. Se indica que la Agencia Vasca del Agua URA ha modificado algunas de las calificaciones en torno al río Asua de Lezama (algunas parcelas de terreno que quedaron inundadas después de las riadas de 1983 han sido clasificadas en un periodo de retorno de 100-500 años; esas áreas, hasta hace poco, no estaban recogidas como tal en el Plan Integral de Prevención de Inundaciones). También se explica cómo se está el río (desde que entra al pueblo, en un profundo canal de cemento y cubierto unos 100 metros). Por todo ello se solicita:

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: NYSL-KLDV-1V0D-5I50
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

- Ibaiaren ertzetako zementua kentzea eta ibilgua naturalizatzea.

- Debekatzea etxebizitzak eraikitzea ibaiaren ondoan.

- Debekatzea ibaia desbideratzea garapen urbanistikoen -etxebizitzak- mesederako.

- Asfalto azpian estalita dagoen ibai zatia berriro bistaratzea.

- Asua ibaian, Lezamatik eta itsasoratu arte, ibai-parkea proiektatzea.

- Aurreko Uholdeen Prebentziorako Plan Integralean (UPPI) zegoen kartografia berreskuratzea.

15. Asua ibaian ere ibai-parkea egitea proposatzen da, ibaiaren balioak sustatzeko, jasaten ari den degradazioa geldiarazteko, eraikuntza berriak debekatzeko ibilguaren ondoan, ibai-ertzeko landaretza berreskuratzeko, aisialdiko inguruak garatzeko, basoen kudeaketa hobetzeko, bertako baso-espezieak landatzeko...

16. Salatzen da 12. planoan agertzen den bidegorri batek, Zamudiori dagokiona, ez dituela gutxieneko segurtasun neurriak betetzen eta oso arriskutsua dela. Bidegorria errepide nagusian dago, eta hainbat bider zeharkatu behar da errepidea semafororik gabeko zebra-bideetan. Hori dela eta, eskatzen da:

    - Zamudion beste bidegorri bat diseinatzea errepidea zeharkatu gabe, autoekin egiten den bezala.

    - Lezamatik Larrabetzura ere halako bide bat planifikatzea eta egitea.

    - Planoetatik errealitatera pasatzea eta, behingoz, ganorazko sare bat egitea.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. LPParen behin-behineko onespenaren dokumentuan, eguneratu egingo dira indarrean dagoen udal-plangintzari buruzko datu-iturriak, planoetako sailkapen- eta kategorizazio-akatsak zuzentzeko.

- Retirar el cemento de las márgenes del río y naturalizar del cauce.

- Prohibir la construcción de viviendas junto al río.

- Prohibir el desvío del río en beneficio de los desarrollos urbanísticos -viviendas-.

- Visualizar el tramo de río cubierto el bajo asfalto.

- Proyectar un parque fluvial en el río Asua, desde Lezama hasta su desembocadura.

- Recuperar la cartografía existente en el anterior Plan Integral de Prevención de Inundaciones (PIPI):

15. Se propone la creación de un parque fluvial también en el río Asua, con el fin de fomentar los valores fluviales, frenar la degradación que está sufriendo, prohibir nuevas edificaciones junto al cauce, recuperar la vegetación de ribera, desarrollar entornos de recreo, mejorar la gestión forestal, plantar especies forestales autóctonas...

16. Se denuncia que un carril bici que figura en el plano 12, correspondiente a Zamudio, no cumple las medidas de seguridad mínimas y es muy peligroso. El carril bici está en la carretera general y atraviesa varias veces la propia carretera en pasos de cebra que no tienen semáforo. Por ello, se solicita:

    - Diseñar otro carril bici en Zamudio, que no atraviese la carretera, como se hace con los coches.

    - Planificar y ejecutar de un vial desde Lezama a Larrabetzu.

    - Pasar de los planos a la realidad y, de una vez por todas, hacer una malla de provecho.

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. En el documento de aprobación provisional del PTP se actualizarán las fuentes de datos sobre el planeamiento municipal vigente, para corregir los errores de clasificación y categorización en los planos.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: NYSL-KLDV-1V0D-5I50
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

2. URA Uraren Euskal Agentzia da, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoarekin batera (Estatuko Administrazio Orokorra), 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborak finkatzeko eskumena duen administrazio hidraulikoa.

   EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak arautzen ditu ibai-ibilguen ertzak eta eraikinei eskatzen zaizkien gutxieneko erretiroak.

   LAGen 4. artikuluaren arabera, zeina azpiegitura berdearen arloko gidalerroei buruzkoa baita, LPPak eremu funtzionalaren eskalari dagokion azpiegitura berdea mugatzen du, eta hirigintza-plangintzari dagokio tokiko azpiegitura berdea sartzea.

3. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak (80. artikulua. Gutxieneko estandarrak eta kopuruak babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzei dagokienez) eta uztailaren 3ko Hirigintzako Estandarrei buruzko 123/2012 Dekretuak (10. artikulua. Gutxieneko estandarrak eta kopuruak babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzei dagokienez) arautzen dituzte babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzei dagozkien gutxieneko kopuruak. Hala ere, LPPan zehaztapenen bat sartzeko aukera aztertuko da, hirigintza-plangintzek aurreikusitako beharrizanetara egokitzen den eskaintza bat egiteari buruzko gogoeta espezifikoa egiteko beharrari dagokionez.

   Bestalde, abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak (kreditu-erakundeen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruaren arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa) kupoak sartzen ditu babes ofizialeko etxebizitzak nahiz zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozeduretan kohesio soziala babesteko eta izaera sozialeko beharrizanak ebazteko. Horrela, bete egin da Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legean ezarritakoa.

   Nolanahi ere, iradokizuneko eskaerak, eraikinetako bizikidetza-ereduari dagokionez, ezin dira ebatzi LPParen berrikuspenean.

2. Es la Agencia Vasca del Agua URA, junto con la Confederación Hidrográfica del Cantábrico (Administración General del Estado), la administración hidráulica competente para fijar los períodos de retorno de 10, 100 y 500 años.

   Es el PTS de Ordenación de los Ríos y Arroyos de la CAPV el que regula los márgenes de los cauces fluviales y los retiros mínimos exigidos a las edificaciones.

   De conformidad con el artículo 4 de las DOT, relativo a las directrices en materia de Infraestructura Verde, el PTP delimita la infraestructura verde correspondiente a la escala del Área Funcional, correspondiéndole al planeamiento urbanístico incluir la infraestructura verde local.

3. La Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo (en su artículo 80. Estándares y cuantías mínimas de vivienda sometidas a algún régimen de protección pública) y el Decreto 123/2012, de 3 de julio, de Estándares Urbanísticos (artículo 10. Estándares y cuantías mínimas de vivienda sometidas a algún régimen de protección pública) establecen las cuantías mínimas destinadas a viviendas sometidas a algún régimen de protección pública. No obstante, se analizará la posibilidad de introducir en el PTP alguna determinación en relación con la necesidad de que los planeamientos urbanísticos realicen una reflexión específica sobre la disposición de una oferta ajustada a las necesidades previstas.

   Por otro lado, es el Decreto 210/2019, de 26 de diciembre, de colaboración financiera entre las entidades de crédito y la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en materia de vivienda y suelo y de modificación de disposiciones reglamentarias en materia de vivienda, el que introduce cupos destinados a resolver las necesidades de carácter social y preservar la cohesión social en los procedimientos de adjudicación de viviendas de protección pública y alojamientos dotacionales, cumpliéndose así las previsiones de la Ley 3/2015, de 18 de julio, de Vivienda.

   En cualquier caso, las demandas de la sugerencia respecto al modelo de convivencia en los edificios no se pueden resolver en la revisión del PTP.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: NYSL-KLDV-1V0D-5I50
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Esan behar da dagoeneko badagoela arau-esparru bat, Eraikigintzaren Kode Teknikoa (EKT), eraikinek, haietako instalazioek barne, segurtasuneko eta bizigarritasuneko oinarrizko baldintzak betetzeko bete behar dituzten oinarrizko kalitate-eskakizunak arautzen dituena, Eraikigintzaren Antolamenduari buruzko azaroaren 5eko 38/1999 Legearen azken xedapenetako bigarrenean xedatutakoa garatzeko. EKTak oinarrizko hainbat dokumentu ditu, eta haietako bat "Energia aurreztea" da.

Hay que señalar que ya existe un marco normativo, el Código Técnico de la Edificación (CTE) en el que se regulan las exigencias básicas de calidad que deben cumplir los edificios, incluidas sus instalaciones, para satisfacer los requisitos básicos de seguridad y habitabilidad, en desarrollo de lo previsto en la disposición final segunda de la Ley 38/1999, de 5 de noviembre, de Ordenación de la Edificación (LOE). El CTE se compone de diversos Documentos Básicos (DB), siendo uno de ellos "Ahorro de Energía" (HE).

"Energia aurreztea" oinarrizko baldintzaren helburua da eraikinak erabiltzeko beharrezkoa den energia zentzuz erabiltzea, kontsumoa muga jasangarrietara murriztuz, eta, aldi berean, kontsumo horren zati bat energia-iturri berriztagarrietatik etortzea, eraikinen proiektuaren, eraikuntzaren, erabileraren eta mantentze-lanen ezaugarrien ondorioz. Horretarako, ezartzen da eraikinek batez ere iturri berriztagarrietatik datorren energia erabili behar dutela energia-premiak asetzeko.

El objetivo del requisito básico "Ahorro de Energía" consiste en conseguir un uso racional de la energía necesaria para la utilización de los edificios, reduciendo a límites sostenibles su consumo y conseguir, asimismo, que una parte de este consumo proceda de fuentes de energía renovable, como consecuencia de las características de su proyecto, construcción, uso y mantenimiento. Para ello se establece que los edificios satisfagan sus necesidades energéticas empleando en gran medida energía procedente de fuentes renovables.

Azkenik, adierazi behar da lurzoruaren artifizializazioa murriztea badela LPParen helburuetako bat, eta lehentasuna ematen diola azpiegitura berdeari.

Por último, hay que señalar que el PTP sí tiene entre sus objetivos reducir la artificialización del suelo y da prioridad a la infraestructura verde.

4. LPPak ez ditu arautzen eremu funtzionaleko ehiza eta arrantza. Ehizari buruzko martxoaren 17ko 2/2011 Legeak arautzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko ehiza, ehiza-espezieen babesa, kontserbazioa eta sustapena, eta haien aprobetxamendua antolatzea, jasangarritasun-irizpideak eta natura-ingurunearen beste erabilera batzuekiko bateragarritasuna aintzat hartuta.

4. El PTP no regula la caza y la pesca en el área funcional. Es la Ley 2/2011, de 17 de marzo, de Caza la que regula la caza en la Comunidad Autónoma del País Vasco, la protección, conservación y fomento de sus especies cinegéticas, y la ordenación de su aprovechamiento con criterios de sostenibilidad y compatibilidad con otros usos del medio natural.

Aldi berean, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuaren martxoaren 6ko 1919/2022 Foru Aginduak (Bizkaiko Lurralde Historikoko arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari buruzko araudia 2022rako garatzen duena) arautzen du zer espezie harrapa daitezkeen 2022ko arrantza-denboraldian eta zein dauden debekatuta.

Paralelamente, la Orden Foral 1919/2022, de 6 de marzo, de la diputada foral de Sostenibilidad y Medio Natural, por la que se desarrolla la normativa que regula el aprovechamiento de la pesca continental en el Territorio Histórico de Bizkaia para 2022 es la que regula las especies que se pueden pescar en la temporada de pesca 2022, y cuales están prohibidas.

5. Mendien aisialdiko erabilera Mendiei eta Babespeko Naturguneen Administrazioari

5. El uso recreativo de los montes está regulado en la Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: NYSL-KLDV-1V0D-5I50
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauak arautzen du. 76 bis artikuluan ibilgailuen zirkulaziorako baldintzak ezartzen dira.

6. Baso-politikari dagokionez, mendien arloan indarrean dagoen legeriak eta EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak arautzen dute. Nolanahi ere, LPPak basogintzan erabilera jasangarriagoak sustatzeko irizpideak jasotzen ditu, eta ildo horri jarraituko zaio dokumentuaren hurrengo fasea idaztean.

   Gainera, Batzar Nagusiek duela gutxi (2022-04-13) xedapen gehigarri bat onartu dute indarrean dagoen mendiei buruzko Foru Arauan, eukaliptoa lurralde historikoan zabaltzea geldiarazteko.

7. Goian adierazi den bezala, baso-politika mendien arloan indarrean dagoen legeriak arautzen du (Mendiei eta Babespeko Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 1994/3 Foru Araua), bai eta EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ere.

8. Iradokizunean egindako eskaera ezin da ebatzi BMko LPPa berrikusteko dokumentuan.

9. Goian adierazi den bezala, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak arautzen ditu ibai-ibilguen ertzak eta eraikinei eskatzen zaizkien gutxieneko erretiroak.

10. Iradokizunean egindako eskaera ezin da ebatzi BMko LPPa berrikusteko dokumentuan.

11. Kontuan izan behar da garraio publikoaren lineak eta ordutegiak ezartzea zentzuzko erabilera-itxaropenen araberakoa dela, eta beste erakunde eta administrazio sektorial batzuen mende dagoela.

   Erabiltzen ez diren eraikinen inbentarioari dagokionez, geoatari bat dago (GISLUR), Bizkaiko jarduera ekonomikoko guneei buruzko informazio guztiarekin.

Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos. En su artículo 76 bis se establecen las condiciones para la circulación de vehículos.

6. Respecto a la política forestal, hay que señalar que está regulada por la legislación vigente en materia de Montes, así como por el PTS Agroforestal de la CAPV. En todo caso el PTP recoge criterios para el impulso de usos más sostenibles en las prácticas forestales y se seguirá en esa línea en la redacción de la siguiente fase del documento.

   Además, las Juntas Generales han aprobado recientemente (2022-04-13) una disposición adicional en la Norma Foral de Montes vigente para frenar la expansión del eucalipto en el territorio histórico.

7. Como ya se ha señalado anteriormente, la política forestal está regulada por la legislación vigente en materia de Montes (Norma Foral 3/1994, de 2 de junio, de Montes y Administración de Espacios Naturales Protegidos), así como en el PTS Agroforestal de la CAPV.

8. La petición que se realiza en la sugerencia no se puede resolver en el documento de la revisión del PTP BM.

9. Como ya se ha mencionado anteriormente, el PTS de Ordenación de los Ríos y Arroyos de la CAPV regula los márgenes de los cauces fluviales y los retiros mínimos exigidos a las edificaciones.

10. La petición que se realiza en la sugerencia no se puede resolver en el documento de la revisión del PTP BM.

11. Se debe tener en cuenta que establecimiento de las líneas y horarios del transporte público está condicionado a unas expectativas razonables de uso y depende de otros organismos y administraciones sectoriales.

   En cuanto al inventario de edificaciones en desuso, existe un geoportal (GISLUR) con toda la información relativa a los espacios de actividades económicas de Bizkaia.

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: NYSL-KLDV-1V0D-5I50
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

Gainera, BFAren Lurralde Antolamendurako Atala Bizkaiko Lurralde Historikoko jarduera ekonomikoetarako lurzoruen inbentarioa egiten ari da, eta webgunean argitaratuko da, amaitu eta berrikusitakoan.

12. Nabarmendu behar da LPParen ikuspegitik modu orekatuan bateratu behar direla lurzoru urbanizaezinaren babesa eta jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintza nahikoa izateko helburu estrategikoa, LAGen 12. artikuluan eta Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko LPSan xedatutakoaren arabera. Eremu funtzionalean baliabide mugatua denez, lurzoru mota horren premia ikuspegi metropolitar batetik aztertu behar da, Lezamako eta Zamudioko udal-irizpideaz harago.

13. Goian adierazi den bezala, LPParen behin-behineko onespenaren dokumentuan, eguneratu egingo dira indarrean dagoen udal-plangintzari buruzko datu-iturriak, planoetako sailkapen- eta kategorizazio-akatsak zuzentzeko.

14. LPPak dagokion administrazio hidraulikoak uholde-arriskuari buruz egiten duen informazioa jasotzen du. Hala, LPParen helburuak bat datoz arlo horretan dagoen arau-esparru zabalarekin, eta iradokizunean eskatutako jarduketa zehatzak araututa daude urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren I. eranskinean (dekretu horren bidez, besteak beste, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen da), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean (LPS) ere.

Azkenik, adierazi behar da Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren 2022-2027 Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (UAKP) eta ziklo bererako Plan Hidrologikoa azken izapidetze-faseetan daudela, eta planaren horizontean egiturazko jarduketak aurreikusten direla.

15. Asua ibaiari dagokionez, LPPan lotura-korridore bat sortzea erabaki da, ibai-parke

Además, esta Sección de Ordenación del Territorio de la DFB está elaborando un inventario de suelos para actividades económicas del territorio histórico de Bizkaia, que se publicará en la web una vez esté finalizado y revisado.

12. Hay que significar que desde el punto de vista del PTP debe conciliarse de manera equilibrada la protección del suelo no urbanizable con el objetivo estratégico de disponer de una oferta suficiente de suelo para actividades económicas, de acuerdo con lo previsto en el artículo 12 de las DOT y en el PTS de Creación Pública de Suelo para Actividades Económicas. Se trata de un recurso limitado en el área funcional, de ahí que la necesidad de este tipo de suelo deba contemplarse desde una perspectiva metropolitana, más allá del criterio municipal de Lezama y Zamudio.

13. Como ya se ha indicado anteriormente, en el documento de aprobación provisional del PTP se actualizarán las fuentes de datos sobre el planeamiento municipal vigente, para corregir los errores de clasificación y categorización en los planos.

14. El PTP recoge la información sobre inundabilidad que realiza la administración hidráulica correspondiente. Así, los objetivos del PTP son acordes con el amplio marco normativo existente en la materia y las concretas actuaciones solicitadas en la sugerencia son ya reguladas en el anexo I del Real Decreto 1/2016, de 8 de enero, por el que se aprueba, entre otros, el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, así como en el Plan Territorial Sectorial (PTS) de Ordenación de Ríos y Arroyos de la CAPV.

Por último, hay que señalar que el Plan de Gestión del Riesgo de Inundación 2022-2027 (PGRI) de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, junto con el Plan Hidrológico para el mismo ciclo está en sus últimas fases de tramitación, y contempla actuaciones estructurales en el horizonte del Plan.

15. En el río Asua, el PTP ha optado por crear un corredor de enlace en vez de un parque flu-

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: NYSL-KLDV-1V0D-5I50
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

baten ordez.

Lotura-korridoreak korridore ekologiko nagusiak eta hiri-azpiegitura berdea lotzen dituzten garrantzi txikiagoko korridoreak dira, ibai-ibilguei lotutako adar gisa.

Ibai-parkeek metropoli-parkeen ezaugarri berberak dituzte (korridore ekologikoen eta hiri-habitataren arteko lotura ekologikoko elementuak dira, eta, gainera, espazio libreen eta ekipamenduen sistemak hartzeko bokazioa dute). Kasu honetan, ibai-ibilguen barruan daude, eta ibaiko lotura-korridoreak ez izan arren, kokapen geografiko garrantzitsua dute eremu funtzionalean azpiegitura berdea gauzatzeko.

Beraz, lotura-korridorearen bidez aipatutako helburuak lor daitezke.

16. Bizikleta-mugikortasunari dagokionez, LPPak lurralde-izaerako sare jarraitu bat jasotzen du, eremu funtzionaleko udalerri guztietako toki-sareen arteko konexioa ahalbidetzen duena. Sare hori eskema mailan definitzen da, eta *dokumentazio grafikoan trazadura-proposamen zehatzik eskatzen ez duen irudikapen bat*"ekin (LPPko antolamendu-arauen 79.1 artikulua). Planteatutako gaiei dagokienez, honako hau adierazi behar da:

- LPPak proposatutako sareak dagoeneko badu Txorierrin zehar doan ardatz bat, Bizkaiko Lurraldeko Bizikleta-bideen Plan Sektorialean dauden aurreikuspenetatik hartua. Plan horrek, besteak beste, Zamudioko hirigunea zeharkatzen du. Ardatz horretako tarte jakin batzuen ezarpena edo hobekuntza LPS horren B dokumentu arauemailearen 4. eranskinean ezarritako moduan egin beharko da.

- Aurreko paragrafoan aipatutako ardatzak Lezamako hirigunea ere zeharkatzen du, eta Larrabetzuko toki-sarearekin lotuta dago, Berresoagan.

- Adierazi den bezala, tokiko sareen arteko konexioa erraztuko duen continuum bat lor-

vial.

Los corredores de enlace son corredores ecológicos, de menor entidad, que unen los corredores ecológicos principales con la infraestructura verde urbana, a modo de ramales vinculados a cauces fluviales.

Los parques fluviales presentan las mismas características de los Parques Metropolitanos (elementos de conexión ecológica entre los corredores ecológicos y el hábitat urbano, que, además, tienen vocación de acoger sistemas de espacios libres y equipamientos) estando en este caso ubicados en cursos fluviales que, si bien no cuentan con la condición de corredores de enlace fluvial, tienen una situación geográfica relevante en la materialización de la infraestructura verde en el área funcional.

Por lo tanto, mediante el corredor de enlace se pueden obtener los objetivos señalados.

16. Respecto a la movilidad ciclable, el incorpora una red continua de entidad territorial que propicia la interconexión de las redes locales de la totalidad de los municipios del área funcional. Esta red se define a nivel de esquema y con *"una representación en la documentación gráfica que no presupone una propuesta concreta de trazado"* (Art.79.1 de las Normas de Ordenación del PTP). Al respecto de las cuestiones planteadas cabe señalar:

- La red propuesta por el PTP ya tiene un eje que discurre a lo largo del valle del Txorierri, tomado de las previsiones existentes en el Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Bizkaia, que atraviesa, entre otros, el núcleo urbano de Zamudio. La implantación o mejora de determinados tramos de dicho eje deberá realizarse en la en la forma fijada en el Anexo 4 del documento "B" normativo del dicho PTS.

- El eje mencionado en el párrafo anterior atraviesa igualmente el núcleo urbano de Lezama y tiene conexión en Berresoaga con la red local de Larrabetzu.

- Como ya se ha señalado la consecución de un continuo que propicie la interconexión

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: NYSL-KLDV-1V0D-5150
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

tzea da LPParen sare-proposamenaren funtsa (antolamendu-arauen 79.2 artikulua). Planaren azterketa ekonomiko-finantzarioan eta egikaritze-programan ezarritakoaren arabera gauzatuko da, eta, sare arteriala deritzonaren kasuan, Bizkaiko Lurraldeko Bizikleta-bideen Plan Sektorialaren B dokumentu arauemailearen 4. eranskinera igorriz.

de las redes locales es la esencia de la propuesta de red del PTP (art.79.2 de las Normas de Ordenación). Su materialización se realizará de acuerdo con lo fijado en el Estudio Económico-Financiero y Programa de Ejecución del plan y, en el caso concreto de lo que se refiere a la denominada red Arterial, mediante la remisión al Anexo 4 del documento “B” normativo del PTS de Vías Ciclistas de Bizkaia.

LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: NYSL-KLDV-1V0D-5I50
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus